

**BITARTEKARIEN BILTZARRA.** Abstentzioaren eragina biziki handia izan da Zuberoan salbu

# CFDTk irabazi du eta LAB laugarren postuan da Baionako hautesbarrutian

Langileen kolegioko parte-hartzea %28,63 zen hautestokiak hertsu baino oren bat lehenago

Erredakzioa | BAIONA

Bitartekari Biltzarrera aurkeztu zen lehen aldia izateko, LABek sarrera nabarmena egin du, Baionako Hautesbarrutian laugarren indar sindikala bihurtuz. Baigorri bezalako zenbait herri-tan LABek lehen postua erdietsi du nahiz eta bozkatzera joan direnen kopurua kontuan hartuz adibidea anekdotikoa izan. Ohi bezala CFDT da lehen indarra Baionako hautesbarrutia eta Zuberoan aldiz, CGTk gehiengo osoa lortzen du bost kolegiotik lautuan.

Behenafarroa eta Zuberoako lurraldeak biltzen dituen Baionako hautesbarrutian, langileen kolegioan, CFDTk 6.913 bozka lortzen ditu, CGTk 5.414, FOK 3.518, LABek 1.896, CFTCK 1.256, UNSAk 885 eta azkenik CGCK 829 bozka. Oro har 23.704 bozka izan dira.

Zuberoako hautesbarrutiari doakionez, CGT agertzen da lehen, bozken %54,16 eskuratu eta azken hauteskundeetako emaitzak (%51,8) abantzu hiru puntutan hobetuz. Bost puntu galtzen baditu ere, FO bigarren postuan mantentzen da bozken %19,44 ardietsiz (lehen 24,6). Hirugarren postuan, CFDT dator bozken %13rekin eta azkeneko hauteskundeetako emaitzen kopuru bera ardietsiz.

Aipagarria da Atharratzeko kantonamenduan CGTk erabateko gehiengoa lortzen duela bost kolegioetatik lautuan bo-



Parte-hartze apala izan zen atzoko bozketa egunean.

zen %80 bilduz. Salbuespena laborantza kolegioan da eta bertan CFDTk bozen %78 lortu ditu.

LABek boikotatu ditu Zuberoan egindako hauteskundeak. Izan ere, Zuberoan ezin izan dute Euskal Herriko hautesbarrutian bozkatu, baizik eta Biarnokoan.

Pentsa zitekeen bezala, abstentzioa izan da hauteskunde hauetako protagonista nagusia. Eguerdiko 12:00etan, langileen kolegioko parte-hartzea %12,33 zen eta arratsaldeko 17:00etan,

## LAB

**Lehen agerpenean, 1896 bozka erdietsi ditu Lapurdi eta Behe Nafarroan, boikotatu Zuberoako bozka**

hauteskundeak bururatu baino oren bat lehenago, parte-hartzea %28,63ko heinera heldu zen.

Eguerdian partean nagusien ko-

legioko emaitzak langileen kolegiokoak baino handiagoak ziren (%17,2) baina eguna aitzinatu ahala, erritmoa apaldu zen eta arratsaldeko 17:00etan %27,38ra mugatu zen.

LABek pozez hartu zituen atzoko emaitzak eta lehen aurkezpene izateko emaitzak espero baino hobekak zirela azpimarratu zuen.

Ordezkaritzari doakionez, sobera goiz da jakiteko nola banatuko diren. Oro har 50 ordezkari izanen dira, 25 langileenak eta 25 nagusienak.

**VOLKSWAGEN.** Kaleratze espedienteari zuzenketa bateratuak aurkeztera joanen dira Lan Sailera

Irene Arrizurieta | IRUÑA

Volkswageneko lan batzordeak enpresan lanuzteak deitu ditu biharko. Zuzendaritzak 590 langile kaleratzeko aurkeztu espedienteari alegazioak egiteko azken eguna dena baliatuz, kontzentrazioa ere egingen du Nafarroako Lan sailaren aurrean 13:00etan.

Ordu horretan lan batzordea osatzen duten UGT, CCOO, LAB, ELA, CGT eta CC sindikatuek kaleratze espedienteari egin alegazioak eramatera joanen dira Lan sailera. Lantegian berriz, hiru txandetan bi orduko lanuzteak egingen dira. Goizeko txandakoak 12:00etatik

## Volkswageneko lan batzordeak lanuzteak eta kontzentrazio deiak egin ditu biharko

02:00tara geldituko dira, arratsaldekoak 14:00etatik 16:00etara eta gauekoak 22:00etatik gauerdia arte.

Bien bitartean, UGT, CCOO eta LABek zuzendaritzak lantegian malgutasuna ezartzeko egin eskaintzari erantzun ezberdinak eman dizkiote. UGT malgutasuna onartzeko prest dago. Urteko lanaldia 1.544 ordukoa (egungoa baino %10 gutxiago) izatea proposatu du eta gehienez egun lan egiten diren

1.712 ordu lan egitea. Soldata jaitsiera negoziatu egin behar dela dio baina bakarrik kontzeptu finkoetan.

CCOOK berriz, lanaldi murriketa bi urtetan egitea proposatu du, urtero %5. Hala, datorren urtean 204 egun lan egingen litzateke eta hurrengoan 193. Horrela zuzendaritzak proposatzen duen %10eko jaitsiera bigarren urtean lortuko litzateke. Hori oinarritzat hartuz, eskaeren arabera lanegunak igoko li-

rateke. Lanaldia jaitea onartzen badu ere, soldata beharpena ez du ametitzen. Dena dela, proposamena «irekia» dela dio eta akordio bateratua hobesten duela.

LABek urteko lanaldia astean 35 ordukoa izatea iradoki du, baina soldata aldatu gabe. Urteko egutegia egituratzeko araudia egitea eta urtean gutxieneko eta gehinezko lanaldia zehaztea. Zuzendaritza eta langileen arteko negoziazioan «berdintasuna» lortzeko eta negoziatzen hasteko sindikatuak espedientea kentzeko eskatu du. Gaur bilduko dira berriro sindikatuak proposamen bateratua lortzeko asmoz.

## ENPRESAK

**Babcocken iraupena bermatzeko ardurari utsiko diola dio SEPIk**

Agentziak | MADRIL

Babcock Borsig euskal enpresaren geroa eta iraupena bermatzeko arduraren beregain hartu duela eta eutsi egingo diola jakinarazi du Cristobal Montoro Espainiako Ogasun ministroak. Pedro Aspiazu EAJko diputatuari erantzuteko, Montorok ziurtatu du SEPIk une hauetan «zabalik» daukela elkarriketa bideak «enpresarekin lotutako eragile guztiekin».

Alemaniko Babcock Borsigek ordainketak eten ostean, Sestaoko enpresaren privatizazioak porrot egin duela onartu du ministro espainiarra. Hori dela eta, euskal enpresarentzat beste erosle baten bila ari direla gogoratu du Montorok.

Era berean, Txinan lortutako kontratu garrantzitsuei esker, enpresaren jardura industrial bermatuta dagoela azpimarratu du ministroak.

## ZERGA ERREFORMA

**Arabako Aldundiak %48ra jaitsiko du PFEZ zergaren goreneko tasa**

Agentziak | GASTEIZ

Arabako Ogasunak %50etik %48ra jaitsiko du PFEZren (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) goreneko tasa datorren urtean, atzo jakinarazi zuenez.

Arabako Aldundiko iturriek gehitu dutenez, Bizkaiko eta Gipuzkoako erakundeek ez dute oraindik zehaztu bi herrialde hauetan jaitsiera %48ra edo %47ra izango den.

EAEko hiru aldundiek hitzartu dutena errenta zergaren gutxieneko tasa da, gaur egungo %17tik %15era jaitsiko baita hiru herrialdeetan.

Era horretan, EAEko ogasunak datorren urtean indarrean jarriko duten zerga erreformak presio fiskala arintzea ekarriko du herritarrentzat.